



BNYB

(BILBAO-NEW YORK-BILBAO)

Klasikoen XVII. Irakurketa Jarraitua

ARRIAGA ANTZOKIAN

2024ko ekainaren 6an

HELBURUA

Honako jarduera-sekuentzia honek Klasikoen XVII. Irakurketa Jarraituaren berri eman eta Kirmen Uriberen lana ezagutzera ematea du helburu.

HELBURU ZEHATZAK











- ❖ 2024ko ekainaren 6an Arriaga antzokian izango den Klasikoen XVII. Irakurketa Jarraituaren berri ematea.
 - ❖ Kirmen Uribe idazlea hobeto ezagutu eta bere lanaren balioa eta garrantzia azpimarratzea.
 - ❖ *BNYB (Bilbao-New York-Bilbao)* liburuaren garrantziaz jabetzea.
 - ❖ XXI. mendearen hasieran Euskal Herrian emandako literatura korrontea ezagutzea.
 - ❖ Liburuaren zenbait pasarte irakurriz, ikasi eta gozatzea.
 - ❖ Irakurketan ikasleek izango duten esperientzia errealera hurbiltzea.
- 🇪🇺 Jarduera gehienak B2 mailatik aurrera egitekoak dira.

BILBAO-NEW YORK-BILBAO

AURKIBIDEA

- | | | |
|-------|--|-----------|
| I. | GONBITA: KLASIKOEN XVII. IRAKURKETA JARRAITUA (B1) | 4.or. |
| II. | KLASIKOA LITERATURAN | 5.or. |
| III. | KIRMEN URIBE Nor da Kirmen Uribe? | 6-7.or. |
| IV. | BNYB (Bilbao-New York-Bilbao) LANA | 8.or. |
| V. | AUTO-FIKZIOA | 9-11.or. |
| | A. BNYB LIBURUA ETA AUTO-FIKZIOA | 12.or. |
| VI. | BILBAO-NEW YORK-BILBAO EUSKAL LITERATURA GARAIKIDEAREN ENBAXADORE | 13-14.or. |
| VII. | BNYB LIBURUAREN EGITURA | 15-16.or. |
| VIII. | ZUZENKETA | 17.or. |

ERABILITAKO TESTUAK

-  <https://bilbozaharra.eus/forum-eta-irakurraldia/bilbo-zaharra-forum/>
-  <https://blogak.eus/so/autofikzioa-euskal-literaturan>
-  <https://kritikak.armiarma.eus/?p=4435>
-  <https://kritikak.armiarma.eus/?p=4579>
-  <https://kritikak.armiarma.eus/?p=4477>
-  <https://kritikak.armiarma.eus/?p=4502>
-  https://www.naiz.eus/es/hemeroteca/gara/editions/gara_2013-11-16-06-00/hemeroteca_articles/bilbao-new-york-bilbao-serbokroazieraz-albanieraz-eta-georgieraz
-  UR HANDITAN: https://eitb.eus/N_5DBxrZ/
-  <https://www.deia.eus/tags/kirmen-uribe/>
-  <https://blogak.eus/so/autofikzioa-euskal-literaturan>

I. GONBITA: KLASIKOEN XVII. IRAKURKETA JARRAITUA

BILBO ZAHARRA euskaltegiko ikasle-irakasleok *Klasikoen Irakurketa Jarraitua* antolatu dugu hamazazpigarrenez, ikasturtearen amaieran eta “Ikasleen jaia” ospakizunaren barruan. Irakurketa eta jaia.

Literatura-jardunaldi berezia izaten da. Urtean behin, euskarazko liburu *klasiko* bat irakurtzen dugu 250 bat lagunen artean. Irakurle bakoitzak pasarte labur bat irakurtzen du eta, ondoren, hurrengoari ematen dio txanda. Aurten, Arriaga antzokian izango da, goizeko zortzietatik arratsaldeko ordu biak arte.

Aurreko urteetan, Axularren *Gero*, Juan Antonio Mogelen *Peru Abarca*, Jon Miranderen *Haur besoetako*, Ramon Saizarbitoriaren *Hamaika pauso*, Arantxa Urretabizkaiaren *Zergatik panpox*, Bernardo Atxagaren *Obabakoak*, Gabriel Arestiren *Harri eta herri*, Joseba Sarrionandiaren *Narrazio Guztiak*, Franz Kafkaren *Metamorfosia*, Itxaro Bordaren *% 100 Basque*, Txomin Agirrerren *Kresala*), Anjel Lertxundiren *Otto Pette*, Mariasun Landaren *Ipuin hautatuak*, Bernart Etxepareren *Lingüa Vasconum Primitiae*, Saizarbitoriaren *Martutene eta* 2023an Miren Agur Meaberen *Kristalezko begi bat* irakurri ditugu.

Aurtengoarekin, beraz, hamazazpigarrena: Kirmen Uriberen **Bilbao-New York- Bilbao**. Asko izan dira obra hori hautatzeko arrazoiak: egilea egungo idazle belaunaldiaren ikur izatea, narrazioa auto-fikzioa genero literario arrakastatsuan kokatzea, nazioarteko literaturaren abangoardian kokatzen den autore batek idatzitakoa izatea, gure hizkuntzatik beste askotara itzulitakoa izatea, eta abar.

Munta handikoa, dudarik gabe, aurtengo **ekainaren 6an**, eta, beti bezala, Bilboko **Arriaga antzokian** aurrera eramango dugun irakurketa-jaialdia. Hainbat irakurle, berrogeita hamar eragile sozial... irakurle zein entzule, *denok zaudete gonbidatuta literatura eta euskara uztartzen dituen festa honetara*.

Aurreko urteetan egindakoaren erakusgarri, [hemen](#).

II. KLASIKOA LITERATURAN

Klasikoen irakurketa egingo dugula adierazten dugunean, ba ote dakigu zertaz ari garen? Zer da klasikoa?

Hiztegira jotzen badugu, Euskaltzaindiaren hiztegian horrela definituta agertuko zaigu:

***Klasikoa,** bereziki literaturan, artean, musikan, dantzan, antzerkian eta zineman, denboraz gaindi eredugarritzat jotzen diren lanak biltzen dituen adjektiboa da.*

Estetikaren ikuspegitik, klasikoaren ideia perfekzioari loturik dago, eta edozein alditako edo arte motatako obrarik onenak adierazteko erabiltzen da.

- a. Baina, zer da klasikoa zuentzat? Ahalegindu definizioa ematen; gero, talde txikietan batu eta komentatu.

- b. Aurreko definizioetan oinarriturik, Bilbao-New York-Bilbao liburua klasikotzat hartuko zenuke?

Hitz egin kideekin eta eman jarraian, zuen aburuz, klasikotzat hartu ahal izateko arrazoiak:

.....
.....
.....
.....
.....

Komentatu klasekideekin ea bat zatozten.

III. KIRMEN URIBE

Nor da Kirmen Uribe ?



Kirmen Uribe idazlea da. Ondarroan jaio zen arrantzale familia batean 1970eko urriaren 5ean. Euskal Filologia ikasi zuen Gasteizen eta Literatura Konparatuko graduondoko ikasketak egin zituen Trenton (Italia).

XXI. mendeko euskal literaturaren berritzaile nagusitzat jotzen da eta euskara nazioartera zabaldu duena (20 hizkuntzatara itzuli da). New Yorken bizi da, eta 2020tik New York Unibertsitateko irakasle laguntzaile aritzen da. Atzerrian egonaldi gehiago ere izan ditu: Columbia University (2018-2020), New York Public Library Cullman Center Fellowship (2018-2019), University of Iowa International Writers

Program (2017), Washington University in Saint Louis (2017), OMI International Writers Residency, Nueva York (2015), eta Headlands International Arts Residency, Sausalito (2013). Nazioarteko aldizkarietan eman ditu argitara bere artikulua, hala nola The New Yorker-en (lehen aldiz azaldu zen euskara aldizkari horretan), Poetry International, Poets and Writers, Pen America, Harvard Review besteak beste.

2002an Kritikaren Sari Nazionala jaso zuen *Bitartean heldu eskutik* poema liburuagatik. 2008an *Bilbao-New York-Bilbao* nobela idatzi zuen eta euskarazko Kritikaren Sari Nazionala eta Literatura Sari Nazionala (narratiba) jaso zituen hurrengo urtean. *Elkarrekin esnatzeko ordua* lanarekin Kritikaren Sari Nazionala jaso zuen 2016an eta irakurleek 2016ko liburu onenari ematen dioten 111 Akademiako Saria lortu zuen. 2019an *17 segundo* poema-liburua argitaratu zuen eta 2021ean *Izurdeen aurreko bizitza* eleberria (New Yorkeko Liburutegi Publikoko Cullman beka).

Nobela eta poesia, haur eta gazte literatura, gidoi eta itzulpenak idazteaz gain, antzerki eta musikan ere kolaborazioak egin ditu (Euskadiko Orkestra, Wim Mertens, Quique González, Juan Carlos Pérez edo Mikel Urdangarin), eta poesia “kalera ateratzeko” saiakera egin du.

Euskara eta Euskal Herriarekiko duen konpromisoaren erakusgari dira bere idatziak (atzerrian herria ezagutzera emateko idatzi zuen *Abangoardia maite duen antzinako herria*), erakundeekin duen lankidetzeta (Eusko Jaurlaritzako Nazioarteko eta Euskara batzordeetako kide da), bai eta belaunaldi berrien artean sormena sustatzeko egindako lana ere (Marabili Jaialdia)

EUSKO IKASKUNTZA

BILBAO-NEW YORK-BILBAO

Kirmen Uriberen biografia irakurrita, esan beheko adierazpenak egia ala gezurra diren.

| | | EGIA | GEZURRA |
|-----|--|------|---------|
| 0. | Kirmen Uribe Bizkaiko barnealdeko herri txiki batean jaioa da. | | X |
| 1. | Ondarroan jaio bazen ere, bere familiak ez du izan inolako loturarik arrantza munduarekin. | | |
| 2. | Ikasketak Euskal Herrian eta atzerrian burutu zituen. | | |
| 3. | Poesia arloan oso ezaguna den arren, gazte literaturan egindako lanei esker lortu du fama. | | |
| 4. | Egun New Yorken bizi da, baina beste leku askotan egon da. | | |
| 5. | Inoiz ez du irakasle eta idazle lanaz beste inolako lanik egin. | | |
| 6. | Gazte literaturan ere saiakerak egin ditu. | | |
| 7. | Mikel Urdangarinekin zenbait lan egin ditu. | | |
| 8. | Kirmenek poesia liburuengatik lortu ditu saririk handienak. | | |
| 9. | Bilbao-New York-Bilbao liburuak bi sari irabazi zituen. | | |
| 10. | Kirmen Uribek Euskal Herriarekin konprometitutako idazlea dela erakutsi du. | | |

Erantzunak

| | | | | | | | | | | |
|-------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|-------------|
| 0.-G | 1.- | 2.- | 3.- | 4.- | 5.- | 6.- | 7.- | 8.- | 9.- | 10.- |
|-------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|-------------|

IV. BNYB (Bilbao-New York-Bilbao) LANA

Ezin dugu ukatu Bernardo Atxagaren Obabakoak euskal literaturaren enbaxadorerik handiena izan dela munduan zehar(34 hizkuntzatan irakur daiteke) . Hala ere, askotan alderatu da Kirmen Uriberen BNYB Obabakoarekin.

Irakurri hurrengo artikulua

(...) Eta esandako guztiaren ondoren, itzul gaitezen, beraz, hasieran planteatzen genuen galderara: *Bilbao-New York-Bilbao* Kirmen Uriberen *Obabakoak* ote?

Erantzuna, alde batetik, baiezkoa da. Argitarapen-daten kointzidentzia harrigarriaz haraindi (hogei urte igaro dira zehazki Bernardo Atxagari fama ekarriko zion obra kaleratu zenetik), ugari dira *Obabakoak* eta *Bilbao-New York-Bilbao* liburuen arteko antzekotasunak, orain arte aletzen joan garen bezala. Biak abiatzen dira alde aurretik idatzitako eta, kasu askotan, argitaratutako material solteetatik (ipuinak, Atxagaren kasuan; zutabeak, Uriberenean). Biak ardazten dituzte testu horiek istorio nagusi baten bitartez (tinkoagoa *Obabakoak*-en, lainotsuagoa *Bilbao-New York-Bilbao*-n). Biek begirutzen dute atzera, galtzen ari den mundu *tradizional* batera, kostaldekora Uribek, baserritarrenera Atxagak; baina biak dira, aldi berean, nobela garaikideak, idatzi ziren uneko munduari lotuak. Biek dituzte ezaugarri metafikzionalak, azalekoagoak eskuartean darabilgun liburuan, oihartzun handiagokoak *Obabakoak*-en kasuan, eta biak abiatzen dira autofikzioaren bidetik, argiago Uriberenak, ez horrenbeste Atxagarenak. Eta, oraindik goizegi bada ezer finkorik esateko, *Bilbao-New York-Bilbao*ren salmenta-datuen erritmo bizia mantenduz gero behintzat, biek lortu(ko) dute zabalpen handia euskal publikoaren artean; behintzat, jakin dugunez, ari da jada irakasleek agindutako irakurgai bihurtzen bigarren hezkuntzako ikastetxe batzuetan.

Baina, bestetik, *Bilbao-New York-Bilbao* nekez izan daiteke beste *Obabakoak* bat, oso zirkunstantzia ezberdinetan sortu delako: Kirmen Uriberen nobela, Atxagarena ez bezala, diseinatuta dago batik bat mundu mailako literatur merkatu baterako, 1988an oraindik sorrera bidean zegoena (euskal literaturari dagokionez bederen). *Obabakoak*, egia da, gure literaturaren nazioarteko libururik arrakastatsuen bilakatu da, baina ez zen, nagusiki, helburu horrekin sortu, eta ikusteko legoke zer bide egingo zuen nazioartean Espainiako Narratiba Sari Nazionala eskuratu izan ez balu. Hain zuzen ere *Obabakoak*-ek hori lortu zuelako izan da posible *Bilbao-New York-Bilbao* bezalako liburu bat sortzea eta, ondorioz, errepikaezina bihurtu da *Obabakoak*-en esperientzia bera. Gainera, *Obabakoak*-ek, Kirmen Uriberen *Bitartean heldu eskutik* hark bezala, batere ohikoa izaten ez den unanimitate bat lortu zuen mota guztietako irakurleen artean, ez duguna uste errepikatuko denik, goian azaldutako arrazoiengatik, *Bilbao-New York-Bilbao*-rekin.

Angel Erro-Iban Zaldua,
Volgako Batelariak,
2009-01-30

BILBAO-NEW YORK-BILBAO

Behin artikulua irakurrita eta bertan esandakoa kontuan izanda, aukeratu erantzunik egokiena.

1. Iban Zalduek eta Angel Errok zer lanekin alderatu dute BNYB lana?

- a) Obabakoak liburuarekin.
- b) Atxagaren lanekin.
- c) Gaur egungo euskal idazleen lanekin.

2. Dataz gain, zein da, bi lanen inguruan, aipatutako bestelako antzekotasun bat?

- a) Errealitateari lotutako istorioak izatea biak.
- b) Hasieratik horrela aurreikusitako istorioak izatea biak.
- c) Biek begiratzen diotela galtzen ari den mundu tradizionalari.

3. Zer esan nahi dute artikulugileek “ *biak dira nobela garaikideak*” esaldiarekin?

- a) Egungo munduari lotuta dauden lanak direla.
- b) Idatzi ziren garaiko munduari lotuta dauden lanak direla.
- c) Garai bereko munduari lotutako lanak direla.

4. Auto-fikzioari dagokionean, zer diote artikulugileek?

- a) Bi eleberriek jorratzen dutela bide hori neurri berean.
- b) *Obabakoak* neurri handiagoan landu duela auto-fikzioa.
- c) *Obabakoak* liburuan auto-fikziotik zer edo zer badago ere, BNYB lanean argiagoa dela .

5. Zer alde ikusi dute egileek *Obabakoak* eta *BNYB* liburuen artean?

- a) Kirmen Uribek mundu mailan zabaltzeko diseinatu zuela bere lana.
- b) Atxagak bere lana mundu mailako literaturan ezaguna izan zedin idatzi zuela.
- c) Uriberen liburuak Atxagarenak baino ale gutxiago salduko dituela.

Erantzunak

| | | | | |
|-----|-----|-----|-----|-----|
| 1.- | 2.- | 3.- | 4.- | 5.- |
|-----|-----|-----|-----|-----|

V. AUTO-FIKZIOA

Aurreko artikuluan egileek **auto-fikzioa** aipatu dute beste ezaugarri bezala. Zer ote da?

Auto-fikzio terminoa Serge Doubrovsky irakasle eta eleberrigileak sortu zuen 1977an, eta *Fils* eleberraren kontrazalean erabili zuen lehen aldiz eleberrri hura “estuki errealak diren gertaeren fikzioa” zela definitzeko.

Hona hemen zenbaitek emandako definizioak:

- *Auto-fikzioa autobiografiaren adierazpen postmoderno da. Casasen ustean, auto-fikzioak graduazio oso desberdinak onartzen ditu obren fikzio eta errealitatearen arteko proportzioari dagokionez eta obra guztiek honako ezaugarri hauek dituzte komunean: autorea pertsonaia gisa agertzen da eta fikziozko zein egiazko elementuak txertatzen dira obran. (Ana Casas, 2012)*
- *“Fikzio gisa aurkezten den eleberrri edo istorioa non narratzailearen eta pertsonaiaren izena autorearenarekin bat datozen”. Auto-fikzio orok errespetatu beharreko bi printzipio daude: eleberrri-ituna eta itun autobiografikoa. (Manuel Alberca)*
- *Auto-fikzioa erabiliz moteldu egiten dira errealitatearen eta fikzioaren arteko mugak, [...] ezinegona sortuz irakurlearen irudimenean. Narratzailea ez da soilik egilearen “ahotsa”, baizik eta haren irudiaren forma hartzen du, eta irakurleak ez du jakingo non amaitzen den bataren eta itzala eta bestearen izaera. Auto-fikzioan, egilea narratzaile gisa agertuz, bere “nitasuna” jartzen du agerian, baina antzeko nitasuna da, une berean, bera eta beste bat. Azken puntuan pertsonaren eta pertsonaiaren arteko desberdintasuna jarri du kolokan. Errealitatearen eta fikzioaren arteko mugak zalantzan ipini dira (Kortazar, 2011).*
- *Auto-fikzioa fikzio bat eraikitzea, gezur baten bitartez egia batera, txikia bada ere iristea da. (Iban Zalduek)*


1. Zuk zeuk zein definizioarekin egiten duzu bat? Zergatik?
2. Ezagutzen duzu auto-fikzioa bere liburuetan erabiltzen duen beste idazlerik?

BILBAO-NEW YORK-BILBAO

Entzun jarraian Miren Agur Meabek auto-fikzioari buruz emandako azalpena:



- a. Bat dator Miren Agur aurretik ikusitako definizioekin? Zertan?
- b. Zer alde dago biografia eta auto-fikzioaren artean?
- c. Aurrekoei erreparatuta, irakurri izan duzu inoiz genero horretako libururik? Zein? Zertan oinarritzen zara hori adierazteko?



BILBAO-NEW YORK-BILBAO* LIBURUA eta *AUTO-FIKZIOA

Jarraian duzuen liburuaren pasartea irakurri:

EZKUTUKO ALTXORRA

2003KO MARTXOAN joan nintzen estreinako aldiz New Yorkera, Bush presidentek irakiarrei emandako ultimatuma bukatzeaz zegoela. Elisabeth Macklin idazleak gonbidatua joan nintzen, musikari lagun batzuekin batera, Manhattaneko lokal batzuetan emanaldiak egitera. Emanaldi horitako batean, Bowey Poetry Club izeneko aretoan, hizkuntzei buruz sekula entzundako definiziorik ederrena esan zidan Phillis Levin idazle neworktarak.

(...)

Baina zenbaitek atentziora deitu zion: testuan agertzen ziren x guztiek.

“ Altxorraren mapa ematen du zuen hizkuntzak” esan zidan, “gainontzeko letra guztiak ahaztu eta x letran soilik arreta jartzen baduzu, altxorra non dagoen jakin dezakezula ematen du”

Ezagutzen ez duzun hizkuntza bati buruz esan zitekeen gauzarik ederrena zela hura bururatu zitzaidan, altxor baten mapa


(31-32. or.)

- a. Aurretik irakurritako definizioak kontuan izanda, pasarte hori auto-fikzioa dela esango zenuke? Zergatik?
- b. Zer ezberdintasun dago biografia eta auto-fikzioaren artean?
- c. Bat al zatoz idazlearekin hizkuntza bati buruz esan zitekeen gauzarik ederrena dela altxor baten mapa ematen duela esatea?

VI. BILBAO-NEW YORK-BILBAO EUSKAL LITERATURA GARAIKIDEAREN EMBAXADORE

Kirmen Uriberen lana zenbait hizkuntzatarara itzulia izan da orain arte, baina zergatik Uriberen lana?

Ikusi jarraian 2019an Ur Handitan saioan egindako elkarrizketaren zatia (30:34-36:00)



Behin ikusita aukeratu erantzunik egokiena:

0. Noiz egin zuen Kirmenek bere lehen bidaia New Yorkera?

- a) Emanaldi baten ostean 2003an, bertako liburu-denda batek gonbidatua.
- b) 2003a joan zen, beste lau lagunekin batera, musika eta poesia emanaldi batzuk ematera.**
- c) Musikariek inoiz ere ez zuten poesia irakurtzera 2003a baino lehen.

1. Zer irakatsi zion bidaia horrek?

- a) Euskaraz idatzitako zerbait mundura atera daitekeela irakutsi zion.
- b) Ideia inozoak daudela irakatsi zion.
- c) Jendeak euskaraz egindako itzulpenak ere gogoko zituela irakatsi zion.

BILBAO-NEW YORK-BILBAO

2. New Yorken argi dute...

- a) ... Euskal Herrian bi hizkuntza daudela.
- b) Bertan euskaldun asko bizi dela.
- c) Euskaldunok hizkuntza bat dugula eta herri bat garela.

3. Kirmenentzat nor da Elisabeth Mcklin?

- a) Bere lanen itzultzailea da.
- b) Beregan, gaztea zelarik, sinetsi zuena.
- c) New Yorkeko aingeru bat da.

4. Zein arrazoi aipatu du Elisabeth Macklinek Kirmenen lanak itzultzeko?

- a) Idazlea xamurra izatea.
- b) Euskaldunon egunkarian argitaratzea.
- c) Kirmenen idatzitako zutabeak irakurterrazak izatea.

5. Nolako izan zen Kirmenen idazkiak New Yorken zabaltzeko prozesua?

- a) Oso erraza izan zen, hasieratik liburuak argitaratzen hasi ziren eta.
- b) Hasieran liburuak aldizkarietara bidali zituen, irakurlea zaletzeko.
- c) Elisabethek poemak aldizkarietara bidali zituen, jendea zaletzen joateko, eta gero argitaratu zuten liburua ingelesez.

ERANTZUNAK

| | | | | |
|-------------|------------|------------|------------|------------|
| 1.-B | 2.- | 3.- | 4.- | 5.- |
|-------------|------------|------------|------------|------------|

BILBAO-NEW YORK-BILBAO

VII. LIBURUAREN EGITURA

Eleberri honek egitura berritzailea du, bere haria istorio laburrek, oroitzapenek eta irudiek osatzen dute, linealtasunik gabe. Hori da Kirmenen hitzetan deigarria egiten zaiena Estatu Batuetako irakurleei.

“ Estatu Batuetako irakurleei haren forma interesatzen zaie, nola dagoen egituratua, eta nola doazen harilkatzen istorioak”

Campusa
E. H Unibertsitatearen aldizkaria

1. Jarraian liburutik ateratako pasartetxoak eta izenburuak dituzue.

| | PASARTETXOAK | | IZENBURUAK | |
|----|--|--|----------------------|---|
| 1. | Barran eskatzen zegoen mutil bat hitz egiten hasi zait. “Zer den famatua izatea” esan dit. “ Jokalariak agurtzera telebista. Gure aita ez da sekula agertuko, ez, horrelako batean. Sei hilabeterako doa Txilera, arrantzan egitera. Sei hilabeterako marea egiten du eta bi hilabete etxean”. (24. or.) | | 14 URTEKO MUTILA | A |
| 2. | ... Jatorrizko karten fotokopiak ziren, bisitan nindoala jakinik, jakinik halaber Arteta eta Bastidaren arteko harremanaren aztarnen atzetik nenbilela, prest zeukan zorroa. Ez zidan eman , orde, agurtzeko ordura arte. (59.or.) | | KAFEA AEROPORTUAN | B |
| 3 | Hegazkina Atlantikoa ari da zeharkatzen bale bat bezala. Neskato bat korrika pasatu da nire ondotik, sorbaldan jo nau. Buelatu eta barkamena eskatu dit. Ilehoria eta betaurrekoduna. <i>Little Miss Sunshine</i> . Film hartako protagonistaren itxura haratu diot. (172.or.) | | ST KILDA | C |
| 4 | <i>Ekainak 4</i> <i>Parisen gaude. Napoleonen hilobia ikusi dut, gerra handiko panorama ikusgarri bat, eta besta gauza asko ikusi ondoren aitarekin igo naiz Eiffel dorreko hirugarren solairura. Handik bista ederra dago bain beldurra ematen zidan behera begiratzeak. Paperezko aireplano bat bota dut dorre puntatik.</i> (82. or.) | | LAGUN BI | D |
| 5 | XX. mendeak ekarri zuen aldaketa St Kildara. Bi mila urtetako bizimodua orduantxe eten zen. Abeltzaintzatik eta txorien lumatetik bizi izan ziren irlakoak mendeetan zehar. Baina turismoaren etorrerak beren bizimodua goitik behera aldatu zuen. (153. or.) | | ATLANTIKOAREN ERDIAN | E |

Erantzunak

| | | | | |
|-----|-----|-----|-----|-----|
| 1.- | 2.- | 3.- | 4.- | 5.- |
|-----|-----|-----|-----|-----|

BILBAO-NEW YORK-BILBAO

Pasarte horietako zein da istorio laburra, zein oroitzapena, zein egunerokoa, zein historia pasarte bat Zein da zure iritziz horiek lotzen dituen haria? Komentatu taldekideekin eta azaldu gelakideen aurrean zuen iritzia.

2. Jarraian testuaren zati bat duzu. Irakurri eta ahalegindu azpimarratutako hitzen sinonimoa aukeratu.

*“Aita **preso hartu (1)** zuten Madril frankisten mende erori zenean. Handik gutxira, **mekaniko gisa (2)** lan egiteko hartu zuten aita, eta lan horrek **aukera (3)** ematen zion ordu batzuk **kartzelatik (4)** kanpo egiteko. Horrek salbatu zion bizia. **Tamalez (5)**, gerra amaitu zenean Serrano Suñez politikariak hartu zuen Madrilgo agintea eta gauzak aldatu egin ziren **goitik behera (6)**. Errepresioa **areagotu (7)** egin zen. Fusilatzeak agindu zituen Suñezek. Mielen aita horrelaxe hil zuten.*

*Aitak, zer gerta ere, papertxo bat eman zion Mieli helbide batzuekin. **Sumatzen (8)** zuten lehentxeago edo geroxeago **hil (9)** egingo zutela. Aitak esan zion berari zerbait **gertatuz (10)** gero helbide haietako batera joateko eta ondo hartuko zutela. Helbideak denak ziren Ondarroakoak.”*

| | A | B | C | D |
|----|-----------------|----------------|-----------------|-------------------|
| 1 | preso eraman | ziegan hartu | preso altxatu | preso egin |
| 2 | mekaniko moduan | mekaniko erara | mekaniko gisako | mekaniko bezalako |
| 3 | abagune | okasio | eskasia | parada |
| 4 | ziegatik | presondegitik | leotzetik | sarjentatik |
| 5 | zoritarrez | zorionez, | damu | erruki |
| 6 | goian behean | arras | erabatera | guztia |
| 7 | urritu | ugaritu | gutxitu | biziago |
| 8 | barruratzen | hautematen | igartzen | nabaritzen |
| 9 | zapuztu | gogaitu | garbitu | erailko |
| 10 | jasoz | jazoz | aurkituz | maneatuz |

ERANTZUNAK

| | | | | | | | | | |
|----|----|----|----|----|----|----|----|----|-----|
| 1- | 2- | 3- | 4- | 5- | 6- | 7- | 8- | 9- | 10- |
|----|----|----|----|----|----|----|----|----|-----|

3. Kirmen Uribek, EITBko Ur Handitan saioan, literaturari buruzko hurrengo hitzak esan zituen.

“Nik irakurleentzat idazten dut, eta gainera, hor, hor, beste gauza askotan bezala, baina hor, fallatu dugu euskaldunok. Ez dugu irakurlearengan pentsatzen, eta pentsatu egin behar da. Irakurtzeko diren liburuak maite ditut nik, irakurri ahal direnak.

Literaturak ezin du aurrera egin irakurlerik gabe. Eta, askotan, akats horretan sartu izan gara, eta geure burua justifikatuz: “... ikaragarritzko kalitatea du, ez dakit zer ...”. Ez dakit, ez dakit.

Irakurlerik gabeko literaturak ez du zentzurik”.

Kirmen Uribe
Ur Handitan saioa
(06:14-07:00)

4. Zer uste duzu zuk? Idatzi , gutxienez, 140 hitzeko idazkitxo Barra-barra aldizkarian argitaratzeko. Bertan adierazi ados zauden Kirmenekin ala ez. Arrazoitu zure iritzia.



VIII: ERANTZUNAK

III. KIRMEN URIBE:

| | | | | |
|-------|------|------|------|------|
| 0.-G | 1.-G | 2.-E | 3.-G | 4.-E |
| 5.-G | 6.-E | 7.-E | 8.-E | 9.-E |
| 10.-E | | | | |

IV. BNYB LANA

| | | | | |
|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|
| 1.-A | 2.-C | 3.-B | 4.-C | 5.-B |
|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|

V. AUTO-FIKZIOA

- a) Bai, idazlea bera agertzen delako pertsonaia bezala eta egiazko zein fikziozko elementuak uztartzen dituelako.
- b) Biografia errealtateari lotzen zaio; auto-fikzioan, berriz, asmatutakoak ere ager daitezke.
- c) Bernardo Atxaga, Miren Agur Meabe, Javier Cercas, Jorge Urrutia, Fillippe Forest ...

VI. BNYB EUSKAL LITERATURA GARAIKIDEAREN ENBAXADORE

| | | | | | |
|-----|------|------|------|------|------|
| 0.B | 1.-A | 2.-C | 3.-A | 4.-C | 5.-C |
|-----|------|------|------|------|------|

VII. LIBURUAREN EGITURA

1. Pasarteak eta izenburuak

| | | | | |
|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|
| 1.-B | 2.-D | 3.-E | 4.-A | 5.-C |
|-------------|-------------|-------------|-------------|-------------|

2.SINONIMOAK

| | | | | |
|-------------|-------------|-------------|-------------|--------------|
| 1.-C | 2.-A | 3.-D | 4.-B | 5.-A |
| 6.-B | 7.-B | 8.-B | 9.-C | 10.-B |

BILBAO-NEW YORK-BILBAO

